

"Vicente Ferrer sariak Altsasuko Institutuan bide berean jarraitzeko bulkada eman digu"

Uxua Azpiroz Armendariz, saritutako proiektuaren koordinatzailea / 2-3



Moha Hamdik, Europako Txapelketa xede / 8-9

Zubia konpondu beharrak Hiriberri Arakilgo Kontzejuaren jarduna baldintzatzen du / 7

Cederna-Garalurrek 21 ekintzaileri laguntza eta aholkularitza eman die urte erdian / 7

Javier Orce Fernandez altsasuarrak erditze batean lagundu zuen sanferminetan / 6

Anne Etchegoyen abeslariak 'Festa' abestiaren bertsioa Urdiainen grabatu du, Gozategirekin / 10

Iker Uribe margolari lakuntzarrak mamoxarroen hormairudia egin du, Unanun / 11

SINADURAK



Altsasutik Boliviarara

Altsasuko Institutuak Vicente Ferrer Garapenerako Hezkuntzako Sari Nazionala jaso du Bolivian, "Altsasutik mundura, mundutik Altsasura" proiektuarengatik. Uxua Azpiroz Armendariz koordinatzailearendako sariak "bide berean jarraitzeko bulkada" eman die

Eneida Carreño Mundiñano eta Mainer Betelu Ganboa SAKANA Altsasuko Institutuak Vicente Ferrer Garapenerako Hezkuntzako Sari Nazionala jaso du ikastetxean landutako 'Altsasutik mundura, mundutik Altsasura' proiektuari esker. Vicente Ferrer, Espainiako Kooperazio Agentziak eta Hezkuntza Ministerioak ematen duten saria da, Garapenerako Hezkuntza eta Herriartasun Globalaren inguruko proiektuak lantzen dituzten ikastetxeak saritzen dituen.

Aipatu saria Altsasuko Institutuak eta estatuko beste bederatzik ikastetxek jaso dute.

Altsasuko Institutuak lortutakoa ez da nolana hikoia, ikastetxe askok ematen baitute izena sariketari. "Gurea saritutako hamar ikastetxeen artean egotea oso pozgarria da" azaldu du Uxua Azpiroz Armendariz Altsasuko Institutuko irakasleak. Lakuntzarrak filosofia, psikologia, balio etikoak, pentsatzen ikasten eta hezkuntza arreta klaseak ematen ditu institutuan, eta be-

rak koordinatu du "Altsasutik mundura, mundutik Altsasura" proiektua. Horregatik berriki Bolivian izan zen, saritutako lana aurkezteko mintegian eta sari emate ekitaldian. "Kooperazio Agentziak munduan zehar dituen egoitzen artean bat aukeratzeko dute urtero sariketarako. Aurten Bolivian egokitu zen, baina aurreko urteetan Dominikar Errepublikan, Jordanian, Senegalen... egin izan da".

Ekainaren 17tik 27ra egon zen Bolivian, eta oraindik "lurra ezin

hartu" dabil Azpiroz. Bolivian praktika onak partekatzeko mintegi batean parte hartu zuen saritutako beste ordezkarietara batera, "esperientzia ahaztezina".

Altsasu, munduan

Altsasuko Institutuan landutako 'Altsasutik mundura, mundutik Altsasura' ez da Vicente Ferrer sariketei begira propio landutako proiektua, inondik inora. "Nafarroako Gobernuak Giza Eskubideen inguruan lan egiteko proposatzen duen Elkartasun Eskola ekimenaren barruan dago Altsasuko Institutua; uste dut aurtengoa laugarren urtea izan dela. Horrela, Nafarroako Gobernutik, eta Nafarroako Gobernu Kanpoko Erakundearen Koordinatzailearekin batera, Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) bat esleitzen zaigu. Gurea, Bakea eta Elkartasuna da" azaldu du Azpirozek. 'Altsasutik mundura, mundutik Altsasura' ekimen horretarako prestatutako proposamen orokor bat da, eta barruan sei proiektu zehatz daude, azkeneko bi ikasturteetan Altsasuko Institutuan garatu direnak. Azpiroz izan da koordinatzailea.



Uxua Azpiroz Armendariz, behean, eskuinetik hasita berriz.

"Nerabeen gaitasun kritikoa garatzen joan da"

UXUA AZPIROZ ARMENDARIZ PROIEKTUAREN KOORDINATZAILEA

Vicente Ferrer Garapenerako Hezkuntzako Sari Nazionala jasotzeko zer suposatzen du?

Ilido berdinean lanean jarraitzeko bultzada, batez ere. Badirudi gauzak ongi egiten ari garela, kanpotik aitortza hori jaso dugu behintzat, eta horrela jarraitzeko animo eta indar handia ematen digu sari honek.

Pertsonalki nolako esperientzia izan da?

Pertsonalki eta profesionalki, oso aberasgarria. Batetik, beste modu batez ezagutu ezin dituzun errealitate batzuk bertan zuzenean ezagutzen dituzulako; horrek aberasten zaitu, eta bertan ikasten duzuna ikasgelara eraman dezakezu. Bertako errealitatea zuzenean ikustea ez da gauza bera. Gainera, Bolivian ginela



UTZITAKOIA

estatu kolpe saiakera izan zen. Ozta-ozta atera ginen bertatik; giro nahasi hori kaleetan sumatzen zen.

'Altsasutik mundura, mundutik Altsasura'. Zein helburu orokor du proiektuak?

Proposamenaren landutako sei proiektuei dagokienez, proiektu bakoitzak bere helburu zehatzak ditu, baina proposamenaren helburu orokorrak lau dira: komunikazio testuinguru inklusiboak eta kulturartekoak sortzea ikasgelan eta ikastetxean; ikasleak pobrezia eta bazterkeriaren problematikaren inguruan sentsibilizatzea, ikuspegi kritiko batetik; giza garapen iraunkorra sustatzea, eskubideen ikuspegitik eta genero-ikuspegiarekin; eta kultura gutxiak ikastetxean erdigunean jartzea eta ikusaraztea.

Irakasle gisa, zein balorazio egiten duzue?

Talde motorraren inplikazioa oso handia izan da. Askotan proiektuak lan zama handia ekartzen du, baina taldea asko inplikatu da, eta ia klastro osoak parte hartu du programan, modu batean edo bestean. Esan daiteke irakasleok oso positiboki baloratzen dugula.


Halako proiektuek zer nolako ekarpena egiten diote gizarteari?

Gaur egun oso zabaldua dagoen "gorrotoaren diskurtso" horri aurre egiteko tresnak garatzea eskaintzen zaie ikasleei. Esaterako, ikasleak, ikuspegi kritiko batetik, pobrezia eta bazterkeriaren problematikaren inguruan sentsibilizatzea; kulturartekotasunaren inguruko jarrera positiboak eraikitzea... Azken finean, hori kultura demokratikoan, bakean eta tolerantzian hezte da, eta horrek beti du isla gizartearen.

Ikasleengan bilakaera hori sumatu duzue?

Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioseviti.es



LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen



bigarra, Vicente Ferrer sariketako Boliviako egonaldiko gainontzeko saridunekin. UTZITAKOA

Bai, lehenengo mailatik laugarren mailara eboluzio hori sumatu dugu, nahiz eta sareetatik gero eta muturrekoagoak diren mezuak jaso, ikusten dugu gaitasun kritiko hori lantzen eta garatzen badoazela.

Beste proiekturen bat garatzeko asmoa duzue?

Elkartasunaren Eskola proiektuan parte hartzen jarraituko dugu, emaitza oso onak jaso ditugulako eta, nolabait, hezkuntzako LOMLOE lege berriarekin bat egiten duelako. Antolatzaileek, sariagatik zoriontzarekin batera, pobrezia eta bazterketaren aurkako borrokan konprometitutako herritartasun globala eraikitzeke ekimen honetan lanean jarraituzera animatu gaituzte, eta sariak bide beretik jarraitzeko bultzada eman digu.

"ELKARTASUNAREN ESKOLA PROIEKTUAN PARTE HARTZEN JARRAITUKO DUGU" UXUA AZPIROZ

Egindako lana ikusita, Vicente Ferrer sariketara aurkeztera animatu zituzten. "Gure koordinatzaileak esan zigun oso proiektu bitxiak eta baliogarriak egin genituela institutuan, eta maiatzean deialdia atera zenez, proiektua sariketara aurkeztu behar genuela. Azkenean, kasu egin genion. Hor egon ginen, memoria guztia garaiz bukatzeko eroen moduan" gogoratzen du. Egindako ahaleginak, merezitako saria izan du.

Ikasleen %25ak, migrazio jatorria Altsasuko Institutuak 525 ikasle izan zituen 2023/2024 ikasturtean, DBH1 mailatik Batxilergoko bigarren mailara bitartean. Ikasleen %25ak migrazio jatorria du, hamazazpi nazionalitateetako. D eredua da nagusi, baina migrazio jatorria duten ikasle askok A ereduaren ikasten dute. Hortaz, A eta D ereduaren arteko uztartzea eta inplikazioa "ezinbestekoa" ikusten zen.

A eta D ereduaren harremana 'Altsasutik mundura, mundutik Altsasura' programa orokorra kulturartekotasuna eta bizikidetzaren hobetzeko eta eraldatzeko

jaio zen. Ildo horretatik, A eta D ereduaren ikasleek arteko harremanak hobetzeko, euren elkar ezagutzera landu nahi zituzten institutuan. "Nola? Elkarrekin jarduerak eta ekintzak antolatuz. Esaterako, apirilaren 14ko Altsasuko elkartasun azokan, eta maiatzaren 19an Altsasuko Munduko Arrozen jardueran elkarrekin parte hartuz. Horrek institutuan gaia aurretik lantzea eskatu zigun. Ikasleei eskatu genien azokan boluntario gisa lan egin zezatela, azoka promozionatzeko bideoak elkarrekin egin zitzatela, Munduko Arrozetan elkarrekin parte hartuz animatu genituen... Bestalde, Kamishibaiak sortu zituzten, Japonian ipuinak kontatzeko erabiltzen duten artea. Izan ere, duela bi urte Osama izeneko mutil bat etorri zen institutura, bere bidaia eta migrazio esperientzia kontatzera, eta hitzaldian oinarrituta ikasleek kamishibai bat egin zuten euskaraz, arabieraz, ukraineraz eta gaztelaraz, eta gero interpretazioak elkarrekin egin zituzten. Ekimen hauen eta beste askoren bitartez lortu dugu, nolabait, kulturarteko bizikidetzaren hobetzeko eta eraldatzeko

Bartolinak eta pedalkadak

Urrian bisita berezia izan zuten institutuan, bartolinena. Bartolina Sisa konfederakuntza Boliviako emakume indigena eta nekazarien kolektibo bat da, haien eskubideak defendatzen dituena. "Aurretik Bartolin kolektiboaren borroka landu genuen. Ikasleek "Etorkizuneko eskutitzak" landu zuten, Clara Campoamor, Rosalia de Castro eta Bartolina Sisa zirenen eskutitzak biltzen dituena. Hura aztertuta, ikasleek eskutitzak idatzi zituzten, emakumeen eskubideen aldeko borrokan eta herri gutxitu eta zapalduen borrokan mundua gaur egun nola dagoen azaltzeko. Kalitate handiko eskutitzak ziren, gaitasun kritiko handia erakusten zutenak. Bartolinak institutura etorri zirenean ikasleek eskutitzak eman zizkieten, eta beraiek guri wiphala bandera bat. Esperientzia oso polita izan zen, aberasgarria". Boliviari buruzko proiektu hau landu izanak Vicente Ferrer saria lortzeko "puntu asko" eman zielakoan dago Azpiroz.

Bartolin proiektuaren azkeneko fasean, hizkuntza gutxituen inguruan "Boliviako lagunei euskaraz!" bideoa grabatu zuten institutuko ikasleek, hango komunitateko gazteekin elkar eragiteko. "A eta D ereduaren ikasleek oso bideo hunkigarria sortu zuten, elkarlanean. Gure hizkuntza, euskara, euren aimaarak eta quechuerak bezala, naturarekin lotura handia duen hizkuntza eta kultura dela nabarmendu nahi du. Bideoa oso polita da, eta institutuko Youtube kanalean (altsasubhi) dago ikusgai. Animatzen zaituztet".

Beste proiektu baterako 'Desafio en pedales' laburmetraia egin zuten Ian Garciak eta Iselmu Buzeidek. "Ikasleek institutura bidean jasaten duten arriskua salatu eta institutura joateko bide segurua bat aldarrikatzen du. Kalitate handikoa da, eta hau ere Youtube kanalean dago".

Ikasleak, motibatuta

Ikasleak "gustura eta motibatuta" ikusi ditu Azpirozek. "Balorazio oso positiboa da. Nerabeek justiziaren zentzua oso-oso berraztertzen dute, eta gustura aritu dira gai hauek lantzen, proiektuek lan egiteko bide alternatibo bat eskaini dietelako, sarritan gelatik kanpo. Beste ereduaren ikasleekin lan egitea gustatu zaie".

Sei proiektuak

'Denok etorkinak gara' proiektuak ikasleek kultura arteko gaitasunak eskuratzea bilatzen du, "kultur aniztasuna modu positiboan bizi, interpretatu eta adierazteko".

'Patio inklusiboak eta kulturartekoak' proiektuak ohiko patioei alternatiba bat eskaintzen die, xakea edo gantxilloa bezalako jarduerekin. "Jarduera horien bidez, jatorri kultural desberdinetako ikasleek elkar hobeto ezagutzeko aukera dute".

'Mugitu oihanaren alde!' proiektua gailu elektronikoak birziklatzeko kanpaina bat da, Afrikako ekosistemak babesteko helburua duena. "Hiru txinpanze babesteko konpromisoa du, bildutako gailu kopuruaren arabera lortzen dena".

'Sakanarako 2030 ekintzaileak' proiektuak "ikasleek ekintzailera sozialaren inguruko proiektu bat marxan jartzera bultzatzen ditu, Sakanako hainbat eragile eta ekintzaileekin elkar eragin ondoren".

'Bartolinak, sareak josten genero berdintasunaren alde' proiektuak Boliviako emakume nekazari eta indigenen kolektiboaren ezagutza du ardatz. "Ahalduzeari, giza eskubideei eta genero-ekitateari buruzko tailerretan parte hartzen dute".

'Mugituz! Bizikletari bide, autoari aire!' mugikortasun iraunkorra sustatzeko hainbat irakasgaitan landu den proiektua da. Aste Berdea antolatzen zuten apirillean.

Izan giltzarri!



June Kintana Larraza Disko jaurtizailea

June Kintana naiz eta Guaixe Fundazioko bazkide egitera animatzen zaituztet. Goazen Sakanako kazetaritza sustatzera. **Izan giltzarri!**



[guaixe.eus/
kideak](https://guaixe.eus/kideak)



ASTEKOA

OIHANE ANDUEZA IMIRIZALDU

Ama eta maitasunaz haratago

Amatasuna gaitasun bat da eta ez dauka umeak izatearekin zerikusirik. Ezta kumeak izatearekin ere.

Hartz emeak, esaterako (ez dut ongi gogoratzen zein mota zehatzekoak diren) bi kume dituenean soilik batengan jartzen du arreta horren bizirautea ziurtatuz. Olagarro amak bere milaka kumeak inkubatzen dituen bitartean ez du deus ere jaten. Jarri dituen lekuaren sakontasunaren arabera, denbora gehiago edo gutxiago eman dezake inkubatzen. Lau urte eta erdira irits daiteke denbora gehien ematen duenak. Bere kumeak jaiotzearekin batera, hil egiten da. Literalki, kumeengatik bizia ematen du.

Euskaraz umea izatea adierazteko erditu hitza erabiltzen dugu eta niri gogoeta suertatzen zait: Orduan, bigarren umea dugunean, laurdendu izango litzateke? Eta hirugarrenarekin zortzirendu esango genuke? Ez naiz sekula ona izan matematiketan, baina logika baduela esango nuke.

Honekin eta animalien kontuekin, zera esan nahi dut: alde batetik, amatasunak, nire esperientzia motzetik, bederen, sakrifizio bat suposatzen duela, norberaren denbora eta aurreko bizitzari agur esate bat.

AMEKIKO IRUDI MAITEKORRAZ GAINDI JOATEA ERE GUSTATUKO LITZAIDAKE

Bestetik, eta hartzaeren kontura itzuliz, erraza litzateke esatea krudela dela hartz amak hartzen duen erabakia gizakion ikuspuntutik. Hala ere, haren sena dena da, eta nork daki hartz amak sufrituko ote duen, edota kumeek nola bizituko duten.

Gizakion ikuspuntutik zer den ona, zer txarra, zer egokia eta zer desaproposa zalantzan jartzea gustatuko litzaidake. Guk ere badugu animalia sena bat, guztiz atzean utzita modu kontzientean, eta jokoan dagoena inkontzientean. Honek, deskonexioak eta balore sistemek asko sufriarazten digute, gauzak izan beharko liritekeen bezala ez direlako.

Zortzi egun erditzen eman zuen ama bat ezagutzen dut eta denbora luze bat pasa zen bere umea onartu eta maitatu arte. Egoera horretan, zer da ona? Nola izan beharko litzateke?

Laburbilduz, amatasuna amaz harago doala esateaz gain, amekiko irudi maitekorraz gaindi joatea ere gustatuko litzaidake, finean, zama bat izan baitaiteke beti maitekor izatea.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Udako kanpaina

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Udako kanpaina Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Prebentzio eta familia programetatik urtero udan egiten dugun prebentzio kanpaina da. Kanpaina hau formatu ezberdinetan kaleratu izan dugu, eta adin tarte ezberdinei zuzendua: 12-16 urte bitartekoei, 18-25 urte bitartekoei, gizarte orokorrari, nerabeei...

Hasiera batean erabilgarriak ziren materialetan jartzen genituen transmititu nahi genituen mezuak: jaietako egutegi batean, zapatiletoetan, CD-ak gordetzeko kutxetan, azpimarratzaileetan, motxiletan... Gaur egun eremu digitala erabiltzen dugu gure mezuak helarazteko. Jaibuseko Instagram eta Sare Soziales bitartez ari gara gure mezuak publikatzen.

Aurten arrisku murrizketari buruzko ideia ezberdinak argita-

ratzen ari gara. Helburua da ideia hauek irakurtzen dituztenak, hausnartzea, eta kontsumitu behar badute ideiak kontuan izatea da helburua. Argitaratzen ari garen ideietako batzuk hauek dira:

- Ba al zenekien nerabegaroko mozkorraldiek garunean arrastoa uzten dutela?
- Ba al zenekien edari energetikoak alkoholarekin nahasteak alkoholak eragiten dizunaren kontzientzia galtzea eragiten duela?
- Bazenekien normala edatea gehiegi izan daitekeela?
- Ba al zenekien kalamua dela gure organismoan denbora gehien irauten duen substantzia? Kontsumitu eta gehienez 2 hilabetera detekta daiteke.
- Bazenekien kalamuaren kontsumoak eragina duela gidatzean?
- Bazenekien kalamuak, naturala izan arren, arriskuak dituela?
- Bazenekien kalamuaren kontsumoak osasun mentaleko arazoak eragin ditzakeela?

• Bazenekien ongi ez dagoen lagun bati laguntzeak (kontsumitu duenean) bizia salba diezaiokeela? Garrantzitsua da inoiz lagunik botata ez uztea.

- Bazenekien kanabisaren kontsumoak memoriari eta kontzentrazioari eragiten diela?
- Bazenekien edari energetikoek bihotzeko arritmiak eragin ditzaketela?
- Bazenekien ura dela osasunerako onura gehien dituen doako edari bakarra? Eta ura edateak zahartzea atzeratu eta memoria hobe izaten laguntzen duela?
- Bazenekien trafiko istripu batean bizia galtzen duten pertsonen ia erdiek alkohola eta/edo beste droga batzuk kontsumitu zituztela?
 - Bazenekien alkoholaren kontsumoak eragiten dituela borrokak, liskarrak, istripuak, erasoak... ehuneko oso handi batean?
 - Bazenekien ura edari alkohol-dunekin tartekatzeak mozkortzeko arriskua murrizten duela?

GUTUNA

Iturmendirako, justizia ala mendekua?

BITORIANO GABIRONDO, SANTI AGIRRE ETA JUAN KRUIZ ALDASORO

Marilyn Vos Savant: "Justiziazko ekintza batek kapitulu bat ixtea ahalbidetzen du; aldiz, mendekuzko ekintza batek kapitulu berri bat idazten du". Faniren historia: uztailearen 16an epaiketa Entzutegi Nazionalan. Terrorismoa goratzea leporatzen zioten X sarean idatzitako iruzkin batzuegatik. Salaketa, UPNk. Entzutegiak auzia ireki zuen eta Fiskaltzak bi urte eta erdiko espetxe zigorra eskatzen zuen. Epaiketan Fiskaltzaren eskaera hori onetsia balitz, Fani espetxera. Azkenean, epaiketara

iritsi baino lehenago "akordioa" egon da defentsa eta akusazioen artean. Zigorra: bi urteko espetxealdia eta isuna. Fani ez da espetxeratua izan. Gaitzerdi. Ezin Justizia deitu gertatutakoari, ordea.

Faniren aurka jarri zen errepresio tresneria 2016an Altsasun guardia zibil batzuekin liskarra izan zuten gazteen aurka erabilitakoaren berdina da. Larritasun txikia duen auzi bati terrorismoaren izaera ematen zaio, bulkada politikoagatik. Auzia Entzutegi Nazionalera doa; Justizia Zero Gunera.

Fani Julen Galartza Iturmendiko bizilagunaren alarguna da. Julen 1978 urtean atxilotu zuten. Poliziak kotxea tirokatu zuten Urbasako mendatean, eta Julen, Julenen

arrebaren mutil laguna eta beste gazte bat zaurituak suertatu ziren. Zaurituak egoteak ez ziren inkomunikaziotik eta torturatik libratu. Hamar urte kartzelan. Bere arreba Puri eta bere anaia Juan Mari atxilotuak eta torturatuak izan ziren Julen Soriako espetxean zegoela laguntzeagatik.

Fani izan dadila Madrilgo Entzutegi Nazionalan auziperatua izan den azken sakandarra. Bizitza politikoaren demokratizazioarako, Entzutegi Nazionala Justizia arruntean urtu dadila. Sistema Judizial burujabea euskal lurraldeetan euskal herritar guztiontzat. Hori da eskatuko duguna uztailearen 20an, larunbatarekin, Iturmendiko kaleak zeharkatuko dituen manifestazioan.


www.guaixe.eus

Maketatzailea:

Lune Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kiriolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:

Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Tren publiko eta sozialaren alde egindako manifestazioa. ARTXIBOA

AHTren kontrakoak bi ahaldun nagusien nahien kontra daude

Batek AHTko lotura Gasteizen eta besteak Ezkion egitea nahi du. Bi kasuetan Sakanari eraginen lioke

SAKANA

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) Nafarroako korridorea eta Euskal Autonomia Erkidegoko Euskal Y-a lotzeko bi aukera daude: Aralar azpian tunela egin eta Ezkion lotunea egin edo, bestela, Nafarroako korridoreak Sakana zeharkatzea eta lotunea Gasteizen egitea. Arabako ahaldun nagusi Ramiro Gonzalez Vicentek azken aukera horren alde egin du eta Gipuzkoako ahaldun nagusi Eider Mendoza Larrañagak, berriz, Ezkionen alde. Garilaren hasieran egin dute iritzi trukea.

Sakana Trenaren Alde plataformako kideek adierazpen horiek ez dituzten batere gustuko izan: "Arabako eta Gipuzkoako ahaldun nagusiak AHTren lotura beraien lurraldeetan egiteko lehiazten diren bitartean, sakandarrok inongo zerbitzurik jaso ez eta ibarrean triskantza eraginen

lukeen AHT onartzera behartu nahi gaituzte". Nabarmendu dutenez, "apirilaren 20ko Altsasuko manifestazio jendetsuan sakandarrek AHT plataforma berri bati ezetz esan genion, eta berriz ere esanen dugu: Sakanak tren zerbitzu egokiak behar ditu eta ez geldialdirik egingen ez lukeen plataforma berri batean pasako litzatekeen AHT". Plataformako kideek betiko tren gaurretza, hobetzearen eta eskaintzen dituen zerbitzuak areagotzearen alde egin dute.

Bestetik, Sakana Trenaren Alde plataformako kideek gogorarazi dute proiektu hori gauzatzeko geologia zundaketak egiteko eskaera ugari daudela. Horregatik, zundaketak egiten ari direla ikusten dutenak gonbidatu dituzte bere herriko udalarekin harremanetan jarri edo 656 111 130 telefono zenbakira hots egitera.

Baso sute arrisku handiagatik kontuz ibiltzeko deia

Sakanan muturreko tenperaturak espero dira gaurko eta biharko. Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez, Sakanan baso suteak izateko arriskua oso altua da. Bosteko eskalan laugarren mailan gaude. Gobernutik jakinarazi dutenez, sute arrisku maila oso altua denez, ezin da barba-koarik edo erromeriarik egin, ezta material piroteknikorik

erabili ere. Nekazaritzako maki-neriaren eta sute-arriskua sortzen duten ekipoen erabilera gobernuak zehaztutako ordutegietan erabiltzeko aukera izanen da. Aldi berean, gogorarazi du baso eta nekazaritza erreketetarako baimena behar dela. Baso sutea izanez gero 112 telefonora hots egin eta sutea non dagoen eta zer ezaugarri dituen jakinarazi behar da. Txikia bada garren oinarrira ura edo lurra bota, edo zuhaixken adarrekin jo. Handia bada, urrundu.

"Hasieran sustoa, baina pozik bukatu genuen"

JAVIER ORCE FERNANDEZ GURUTZE GORRIKO BOLUNTARIOA

Langintza horretan estreinako sanferminak zituen eta festen azkeneko egunean, entzierroaren aurretik, Sheylin umearen erditzearen laguntzaile eta lekukoa izan zen

Alfredo Alvaro Igoa ATSASU

Gurutze Gorriko langilea izateaz aparte, boluntarioa ere bada. Joan zen urtean hasi zen. Hasieran logistika eta garraio kontutan aritu zen. Osasun Larrialdi teknikari ikasketak bukatu zituen duela bi hilabete eta ordutik teknikari gisa ari da lanean.

Zergatik boluntario?

Osasun Larrialdien arloan oso garrantzitsua da esperientzia izatea. Lanaz aparte esperientzia gehiago zeureganatu badezakezu boluntario lana eginez, hobe. Azken finean, boluntario lanak prebentziokoak dira. Esaterako, Iruñeko entzierroan. Han egoteko izena eman behar duzu, baina, azken finean, zure ezagutzak probatu behar dituzu.

Sanferminetan zer egin zenuen?

Nire lanaldiaz aparte, batez ere Errekoletak plazako osasun postuan egon naiz boluntario gisa, baita entzierroan eta zezen plazan ere.

Zuek festa gutxi, ez?

Hala da. Festan zaude, baina, aldi berean, ez. Postuan sartzen zarenetik txanda bukatzen den arte ia gelditu gabe zabilta.

Azken egun berezia izan zenuten.

Zaintza bukatuta, mediku bat eta bi tekniko Errekoletak plazako postutik hilaren 14ko 06:00etan atera ginen. Gurutze Gorriak Leire kalean duen egoitzara anbulantzia gindoazen, entzierrorako prestatzeko. Vianako Printzea eta Merinaldeak artean geundela, auto bat aldamenen jarri eta eta gidariak keinuak egiten hasi zitzaigun. Gidari nindoan eta pentsatu nuen: bidea itxiko nion, jo dut, argiren bat hondatuta dut, atea zabalik edo halakoren bat. Medikuari leihatila jaisteko eta ea zer nahi zuen galdetzeko esan nion.

Zer nahi zuen?

Zera entzun nuen: "neskaren burua dagoeneko ateratzen ari da eta emaztea erditzeaz da. Ki-deak begiratu egin zidaten.



Javier Orce Fernandez Gurutze Gorriko langilea eta boluntarioa.

"GURE LANA HALAKOA DA: TXURITIK BELTZERA EDOZEIN UNETAN PASATZEN ZARA"

Zer egin zenuen?

Oraintxe San Martin doktorea anbulatoriora! Anbulantziako argiak piztu eta sirenak jarri nituen. Ahal zen bezala bidea zabaldu nuen. Minutu batean han geunden. Bikotearen autoak ate parean aparkatu zuen, anbulantzia ahal nuen moduan utzi nuen. Kideak autora joan ziren, nik erditzeetarako kit-a hartu eta medikuari eman nion. Eta anbulatoriora sartu nintzen, laguntza eske.

Eta?

Ez zen betarik izan. Emakumezkoa autoan bertan erditzen hasi zen, eta sei edo zazpi minututan erditu zen. Han geunden guztion artean lortu genuen. Ama eta jaioberrria ongi zeudela ikusita, medikuek erabaki zuten han artatzen segitu beharrean ego-kiagoa zela ospitalera eramatea. Beraz, biak gure anbulantzia

sartu eta Bideko Ama ospitalera eramanez. Aita, autoan, gure atzetik joan zen.

Dena ongi?

Dena oso azkar eta ongi atera zen. Halakorik ez duzu espero, eta oso ongi atera zen. Hasierako sustoa kenduta, denok pozik bukatu genuen.

Estreinakoa?

Aurreneko aldian da, bai. Eta uste dut nire bi kideendako ere.

Zer sentitzen da?

Profesionalki, oso polita da. Batez ere, ni bezalako "hasi berri" batendako. Ederra da ikustea hainbeste kosta zaizun prestakuntzak benetan funtzionatzen duela, baita gauzak prestatuta ez daudenean ere. Pertsonalki, oso atsegingarria da. Guztioi gustatzen zaigu ume baten jaiotza. Halako muturreko egoera batean ume bat jaiotzen lagundu badezakezu, gainera dena ongi ateratzea, oso ederra da.

Ondoren zer egin zenuten?

Egoitzara joan eta, ondoren, entzierrora. Lana halakoa da: txuritik beltzera edozein unetan pasatzen zara. Beti erne ibili beharra dago: badaude handiak diruditen gauzak, gero txikiak direnak, eta alderantziz.

Zubiak kontzejuaren jarduna baldintzatzen du

Hiriberriko Arakil ubelde gaineko zubia konpontzeak 250.000 euro inguru balio du. Dirulaguntzarik gabe ezinezkoa izanen da hura konpontzea, baina Nafarroako Gobernuaren deialdietan ez dute onartu. Beste egitasmoak baldintzatzen ditu

Alfredo Alvaro Igoa HIRIBERRI ARAKIL Herritik gertuen dagoen zubiko begian, klabeen, harriak falta dira eta zartatu handi bat du. Ondorioz, zubia erortzeko arriskuan dago. Arakil ubelde gaineko zubia Hiriberri Arakilgo soro eta larre batzuetara eta basora joateko bide bakarra da. Baina bere egoera kaxkarraren ondorioz, gehienez ere 10 tona arteko ibilgailuak pasa daitezke handik, eta gehienezko abiadura 20 kilometro ordura dago mugatuta. "Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza deialdietara aurkeztu genuen konponketa proiektua, baina deialdi bakar batekin ez da bat etortzen. Dirulaguntzarik gabe ezin dugu guk bakarrik konponketarik egin, dirutza da. Horregatik gaude gobernuarekin harremanetan, zubia konpontzeko dirua nondik lortu aztertzeko", azaldu du Javier Arrieta Anizek, Hiriberri Arakilgo kontzejuko presidentek.

Zubia noizbait berritu beharko duela eta lanak aurrekontu handia izanen duela jakitun, Hiriberri Arakilgo Kontzejuak "gauzak ezin egin" dagoela azaldu du Arrietak. Aurtengo aurrekontua 47.300 eurokoa da, Nafarroako Gobernuak eta Arakilgo Udalak egindako ekarpenekin eta baso aprobetxamendu baten salmentekin osatuta. "Inbertsionarako 28.000 euro bideratu ditugu. Baina 22.000 euro zubiko lanak egiteko zakura bideratu ditugu", azaldu du Arrietak. Beraz, etorkizunean egingen duen inbertsio handirako kontzejua dirua pilatzen ari da.

Damoklesen ezpata bihurtu zaio zubia Hiriberri Arakilgo Kontzejuari. "Horregatik, ez diegu beste lan batzuei heltzen, eta ez dugu aurrera egiten". Esaterako, kontzeju etxean bi lan dituzte aurreikusita. Batetik, atzeko aldean dagoen atea berritzea. Eta, bestetik, eraikina bera marrotzea. Hala ere, kontzeju buruak



Traktorea hondatutako zubiko begiaren gainean. ARTXIBOA

"ZUBIAREN LANAGATIK EZ DIEGU BESTE LAN BATZUEI HELTZEN, ETA EZ DUGU AURRERA EGITEN"

azaldu du han dagoen squasheko zoruko tarima atzera ere bernizatu dutela. Kontzeju etxean eguzki plakak jartzearena, "badugu Sakanan sustatu nahi den energia kooperatiben berri", baina aukera iristen denean aztertuko dutela azaldu du Arrietak, begia zubian duela.

Bestalde, Arakilgo Udalak foru administrazioaren Tokiko Inbertsio Planeko sareak berritzeko eta zolaketa lanak inbertsio lerroa Hiriberri Arakilen egin beharreko lanak aurkeztu zituen. Zubiko Bidea eta Larrainak kaleetako zoruaren zatiak berritzea. "Eskaera asko izan ziren eta erreserban utzi gintuzten. Ea hurrengo deialdian jasotzen dugun".

Gaztainadia

Kontzeju buruak jakinarazi duenez, Sakanako beste herri ba-

tzuekin batera, Hiriberri Arakilek ere gaztainondoak berreskuratzeko proiektuarekin bat egin du. "Bi jarduera egingen ditugu. Gaztainzulo dermiotik gaztainondoak kendu eta pinuak jarri zituzten 1970ean. Orain hektarea eta erdian arraseko mozketak egingen dugu eta, ondoren, hektarea batean gaztainak landatuko ditugu". Beste jarduera mendian, goian, egingen dute. "Gaztainondo zaharrak daude, pagoz inguratuta. Haietako batzuk moztuko dira, gaztainondoak aurrera egin dezaten. Gainera, landare berriak landatuko dira eta bertako barietateekin txertatuko ditugu". Intia enpresa publikoaren aholkularitza dute horretarako.

Arrietak azaldu duenez, "kontzejuak 50 hektarea pinu landaketa ditu. Pinudian bakanketa egiteko garaia iritsi da. Baina horrekin batera, etorkizunean han zer egin nahi dugun pentsatzen hasteko garaia da: gaur egun bezala baso ustiapenera bideratzea, azaldu du Arrietak. Bitartean, udal langileek basoan garbiketaren bat egingen dute.



Ekintzaile bat Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuko ikasleekin. UTZITAKOA

Ekintzaileek bederatzi enpresa sortu dituzte

Cederna-Garalurrek 21 ekintzaile sakandarri laguntza eta aholkularitza eman die urteko lehen seihilekoan

SAKANA

Ibarreko ekintzaileei laguntza eta aholkua emateaz arduratzen da Cederna-Garalur. Garalurren Ekintzailetzari Laguntzeko Zerbitzuan 21 ekintzaile hartu dituzte aurtengo lehen sei hilabeteetan, haietatik hamahiru emakumezkoak ziren eta zortzi gizonezkoak. Zerbitzuaren jardunaren ondorioz, bederatzi enpresa martxan jarri dira eta beste horrenbeste lanpostu sortu dira. Enpresen izaera juridikoari dagokionez, zortzi banakako enpresari gisa eratu dira eta bat sozietate irregular gisa.

Garalurrek ekintzaileak laguntzeaz aparte, martxan dauden enpresei ere laguntza eta aholkularitza ematen dizkie. Hala, Garalurren Sakanako Ekintzailetzari Laguntzeko Zerbitzura jo duten bi urte baino gutxiagoko antzinatasuna duten sei enpresetako arduradunek, guztiak

emakumezkoak. Bestetik, bi urte baino gehiagoko antzinatasuna duten sei enpresen eskaerak ere hartu dituzte, lau emakumezko eta bi gizonezko ziren horietan buruak. Aldi berean, Garalurrek ekintzaile eta autonomoei zuzendutako lau tutorial telematiko eskaini ditu.

Bestalde, Garalurrek ekintzailetza esperientziei buruzko tailer pare bat antolatuta eman zuen Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuan. Bi ekintzaile sakandarrek beraien esperientziak kontatu zizkieten ikasleei, batek Dereduan eta besteak A ereduan.

Garalurren astegunetan 08:00etatik 15:00etara hartzen dituzte ekintzaileak, beti ere, alde aurretik hitzordua eskatuta. Harremanetarako: 639 900 336 (Susana) edo 619 328 264 (Osia) telefono zenbakiak edo sakana.admon@cederna.es edo sakana@cederna.es e-postak.

Altsasuko hiru kaletan zolatzeko lanak egiten ari dira

Zelai kalean, aterpearen parean. Erkuden kalean, Amaia eta Gipuzkoa kaleen artean, eta Auzobide kalean, Amaia eta Idertza gain kaleen artean. Horietaz aparte, Gurutze Saindua kaleko etxarte baten zorua konponduko dute. Lanak Excavaciones y Transportes Orsa enpresak egiten ari da 133.619,44 euroren (BEZik gabe) truk.





Moha Hamdi, ezkerrean, erasoan. Munduko txapelduna izan zen 2019an, eta Europako Txapelketa jokatu du azaroan. UTZITAKOIA

"Aldea nortasunean dago, irabazteko gosean"

MOHAMMED HAMDİ HAJJİ KICKBOXING ETA BOXEO BORROKALARIA

KICKBOXINGA / BOXEOA Kickboxean palmares ikusgarria du irurtzundarrak. Munduko txapelduna izan da, eta azaroan Atenasko Europako Txapelketetan goian egon nahi du

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN Mohammed 'Moha' Hamdi Hajji irurtzundarrak palmares ikaragarria du kickboxingean. 2019an munduko kickboxing txapelduna izan zen, 2022an Europako txapeldunordea eta 2023an munduko hirugarrena. Aurten Munduko Kickboxing Kopa irabazi du, seigarrena, bestelako lorpen zenbaezinekin batera. Egunotan Espainiako Boxeo Txapelketan parte hartzen ari da, baina bihar Irurtzungo festetan egon nahi du, kuadrillarekin gozatzeko.

HASIERAK
Noiz hasi zinen kickboxingean?
11 urte nituela, lagun batek esan zidan kickboxingean hasi behar zela, eta probatzera animatzeko. Joan nintzen, gustatu zitzaidan, eta gaurdaino. Irurtzunen Paco

"JOXE VICENTE EGUZKIZAK ESATEN ZIDAN OSO TXARRA NINTZELA, BAINA ZERBAIT BANUELA"

izan nuen lehen entrenatzailea. Bi urte barru Burlatako Kanku gimnasia joaten hasi nintzen astean behin, Joxe Vicente Eguzkizarekin, eta gero Kankun jarraitu nuen.
Kickboxinga, laburbilduz, boxeoa da, baina ostikoekin. Definizio horri zer gehituko zenioke?
Ez da definizio txarra. Kickboxingean modalitate ezberdinak daudela gehitu daiteke. Esaterako, nik gehien bat K1 modalitatea lantzen dut. Kickboxinga da, baina ostikoak ematez gain,

belaunekin ere kolpatu daiteke. Mundu konplexua da hau, modalitate asko daudelako. Kickboxingaz gain, full contact modalitatea ere landu dut (kickboxinga da, baina soilik gerritik gora jo daitezke ostikoak), muay thay modalitatea (K1 modalitatea da, baina ukondoarekin ere kolpatu daiteke eta proiektzioak egin daitezke) eta baita boxeoa ere bai.
Noiz hasi zinen txapelketetan parte hartzen?

Entrenatzen hasi nintzen urtean bertan izan zen. Nafarroako selekzioarekin lehen aldiz 2014-2015 inguruan lehiatuko nintzen. Gogoan dut Oviedon jokaturako Espainiako Kickboxing Txapelketa izan zela, eta zilarrezko domina lortu nuela.

Beraz, berehala nabarmendu zinen. Ez dakit ba. Urte askotan entrenatzaile izan nuen Joxe Vicente Eguzkizak esaten zidan: "oso txarra zinen, baina zerbait bazenuen" (kar-kar).

Eta zerbait hori zer den deskubritu al duzue?

Ez dakit, badirudi emaitzek berez hitz egiten dutela. Askotan entrenatzen dut, zaintzen naiz, konstantea naiz... baina hori mundu honetan gabiltzan guztiok egiten dugu. Aldea nortasunean dago, jarreran: irabazi nahi izate hori, gose hori, besteak baino pixka bat gehiago ematea, eta neure buruan konfiantza izatea.

Kankun entrenatzen jarraitzen al duzu?

Ilbeltzean kickboxing klaseak ematen hasi nintzen Lakuntzan, eta otsailean Kanku utzi nuen. Astean bitan ematen ditut klaseak igerileku gaineko gelan. Hemezortzi ikasle inguru ditut, sakan-darrak. Gazteenak 14 urte ditu, eta helduenak 30 urte baino gehiago. Talde polita egin dugu. Txapelketak ditudanean nire lehengusua ordezkatzen nau, ematen dizkiodan jarraibideekin.
Eta hori guztia ikasketekin eta lanarekin uztartu duzu.

18 urtetatik beti lan egin izan dut, baina aurten, apirilean, Garrantzaren Hiriburuko biltegi batean nuen lana utzi behar izan nuen, nituen txapelketa eta lehiaketa guztiekin ez zelako bidera-

"ATENASEN GOIAN EGON NAHI DUT, TXINAKO WORLD COMBAT GAMES-ERA SAILKATZEKO"

garria. Izan ere, maiatzean Turkian lehiatu nintzen, gero Vigon, ondoren Zaragozan, Bartzelonan, Lisboan, Murtzian, Valentzian, orain Leonen... ez nuen horrenbeste egun hartzeko, eta oraindik beste hainbat txapelketa ditut aurretik. Baina epe laburrean berriro lanean hasiko naiz, ziur.

PALMARES IKUSGARRIA
Martxoaren 23an, Munduko Kickboxing Kopa irabazi zenuen Italian, seigarrena.

WAKO-k (Kickboxing Antolakuntzen Munduko Elkarte) antolatzen du kopa, eta Espainiako Kickboxing eta Muay Thai selekzioarekin lehiatu nintzen. Kopak urteko hitzordurik garrantzitsuena prestatzeko balio du, aurten, azaroan Atenasen jokatu den Europako Kickboxing Txapelketa. Open antzekoa da, baina prestigioa du. Finalean alemaniar bat izan nuen aurkari, eta bigarren roundean irabazi nuen, K.O. Seigarren aldiz irabazi dut Munduko Kopa, eta kontentu nago. Gainera, kategoria berrian lehiatu nintzen, -91 kg-ko mailan, eta eroso sentitu nintzen.

Espainiako Kickboxing eta Muay Thai selekzioan sarritan hautatzen zaituzte?

2019 urtetik nago selekzioan, huts egin gabe. Selekzioan hautatu izateko, hasteko eta behin autonomiako txapelketa irabazi beharra duzu, nire kasuan Nafarroakoa, eta Espainiako Txapelketan ere aurrean egon behar duzu. Baina ez da soilik irabaztea; hautatzailearen arreta piztu behar duzu, zure dohainek atentzioa eman behar diote, eta ongi egin dezakezula erakutsi behar diozu. Kopa edo openetara deitzen badizute eta ongi egiten baduzu, Europako edo Munduko Txapelketetara joateko aukera izango duzu. 2019an Munduko Txapelketa irabazi nuen Sarajevon; 2022an Europako Txapelketan zilarra izan nintzen, Robert Krasn poloniarrekin finala galdu eta gero; eta 2023ko azaroan munduko brontzezko domina lortu nuen Portugalen. Oker ez banga, Espainiako Kickboxing Txapelketa sei aldiz irabazi dut, azkena aurten, Guadalajaran.
Zergatik aldatu duzu kategoriaz?
Normalean -86 kg mailan lehiatzen nintzen, baina Espainiako Federaziotik mailaz igotzeko eskatu zidaten, pisu horrek 2025eko abuztuan Txinan joko-

tuko diren World Combat Games txapelketetarako sailkatzen due-lako. Horregatik ari naiz pisu astunean lehiatzen (-91). Kategoria horrekin lortu nuen martxo-ko Munduko Kopa, eta maiatzean Turkian jokaturako Mediterraneoko I. Jokoak.

Palmares ikaragarria duzu. Etxean makina bat gerriko izango dituzu... Idazmahaietan nituen, baina berriki armairuan gorde nituen, hauts gehiago har ez zezaten. Ez dut garaipen guztien kontua ematen. Ez dakit zenbat diren.

Zoazen tokian, faboritoen artean egongo zara. Zuretako presioa.

Nik argi dut zertara noan; presioak ez nau kezkatzen. Badakit nolako maila dudana, zenbat lan egin dudana eta, hortaz, irabaztera noa beti. Zer bait egin behar baduzu, ongi egin beharra duzu. Soilik parte hartzera joatea... gaizki. Beti dago galtzeko aukera; galdu izan dut, eta ziurrenik galtzen jarraituko dut, ez da ezer gertatzen. 130 borroka baino gehiago daramatzat, baina tituluak baino, arerioek asebetetzen naute, borrokalari onekin lehiatzea.

Zein arerio errespetatzen duzu gehien?

Guztiak berdin errespetatzen ditut, baina norbaitekin borrokatzeko gogoak izatea beste gauza bat da. 2023ko Munduko Txapelketako finalerdian irabazi ninduen Aleksandar Markovic-ekin berriro borrokatu nahiko nuke. Oso ona da, lau aldiz izan da munduko txapelduna eta harreman ona dut berarekin; borrokaldi estua izan genuen. Joan zen urtean full contact-ean lehiatu nintzen eta turkiar batek, Rayanek, bi aldiz irabazi ninduen. Atzera ere lehiatuko nintzateke. Hauek amateurrek dira; zirkuitu profesionaleko askorekin borrokatuko nintzateke gustura. Erru-



Tituluek baino, borrokalari onekin lehiatzea asebetetzen dute Moha Hamdi. UTZITAKOIA

siarrak oso onak dira, mundu mailan onenetakoak. Urtero borrokalari berri bat ekartzen zuten, eta onena zen. Baina orain ez daude lehian. Serbiak ere maila handia du. Ekialdeko herrialdeak nabarmetzen dira kirol honetan; borrokalariagoak dira, eta kirol honekiko kultura gehiago dute. Espainiar selekzioa geroz eta gehiago bulkatzen ari da.

Duzun maila kontuan hartuta, zuretako ez litzateke hobe izango zirkuituko hiri handi batean bizitzea? Ez litzaidake gaizki etorriko, egia esan. Bartzelonan mundu honetan dabilen jende asko dago, eta Madrilen baita ere. Nafarroan Kanku gimnasioan maila handia dago, baina oso gutxi gara. Abentura berria ekitea sarritan izan dut buruan, baina Irurtzunen dut bizia, lagunak, familia, lana... Gainera, mundu hau gorabeheratsua da, iragarrezina.

Agian borrokaldi bat hitzartuta duzu eta astebete lehenago arerioa lesionatzen da, edo promotoreak atzera egiten du, eta zuk ez duzu kobratzen. Hiri batera joatea arriskatzea, dituen gastu guztiekin -alokairua, gimnasioa, fisioa, nutrizionista, ongi jatea...- zaila da. Ikusiko dugu zer egiten dugun.

ATENAS ETA TXINA XEDE

Aste honetan Espainiako Boxeo Txapelketan lehiatzen zaude, Leonen. Aspalditik nuen aritzeko ilusioa, baina bestelako txapelketaren bat izaten nuen. Aurten libre nengo, eta animatu naiz. Ea zer moduz ateratzen den.

Hemendik aurrera zein dira helburu nagusiak?

Azaroan Atenasen jokatu den Europako Kickboxing Txapelketa da erronka nagusia. Lehendabiziko lauak 2025eko Txinako World Combat Games txapelke-

tara sailkatuko dira, eta lan ona egin nahi dut, hor egoteko. Hurrengo helburu nagusia Txinako litzateke, sailkatuz gero. 2025ean ere Munduko Kickboxing Txapelketa jokatu da.

Nola ikusten duzu?

Gerra emango dugu, hori ziur. Ibilbide ona dut, eta pisu eta kategoria berrira ongi egokitu naiz. Azarora bitartean borrokaldi gehiago izatea espero dut, konfiantza hartzeko. Ekainean bi borrokaldi profesionaletan hartu nuen parte. 22an Bartzelonan jokaturako irabazi nuen, eta 27an Portugalen jokaturako, aldiz, galdu, baina borrokaldia oso paretsu joan zen.

Lesioek errespetatzen zaituzte?

Ongi nago. Beti daude oinazeak, hori bai. Ez dakit saihetsaren bat pitzaturik ote dudana. Aguantatzeko naiz, onerako eta txarrerako. Gehiegi estutzen dut makineria, aitortu beharra dut. Astelehentik larunbatera entrenatzen dut, egunean lau ordu inguru.

Irurtzungo festez gozatzeko aukera izango duzu?

Larunbateko kuadrillako afarian eman dut izena, Espainiako Boxeo Txapelketatik garaiz iristea espero dut. Eta igandean vermoutha hartzea. Lagunak gutxi ikusten ditut, eta aprobetxatu nahi dut.

Kirol honetaz bizi ahal izatea zure ametsa litzateke?

Jakina! Bakarrik borrokatzen badut, oso zaila da. Estatuan profesionaletan gutxi ordaintzen da, eta ez dira borrokaldi asko ateratzen. Zortea alde izan eta enpresa edo promotora handi batekin kontratua sinatuko banu, ordea... Baina oso zaila da.

Familia kontentu dago?

Amak gaizki pasatzen du, ez zaio gustatzen, eta uzteko esaten dit. Baina gainontzekoak pozik daude. Ez naiz kexatzen.

LABURREAN

Berastegi eta Beratxa, kopako podiumean



Larunbatean Emakumezkoen Espainiako Kopako azken proba jokatu zen, Leonen. Ane Berastegi arbizuarra (Beratxa) hirugarren postuari eutsi zion, Paula Ostizen eta Irati Arangurenen atzetik. Taldeka, Beratxa izan da txapeldun. Berastegik eta Siets Goikoetxea urdiaindarrak gustura ospatu zuten.

Olatz Azazeta bigarren, eta ikusgarri, G2H-etan



Olatz Azazeta Pelaez mendi korrikalaria ikusgarri aritu zen asteburuan Beasainen jokaturako Goierriko Bi Haundietan (90 km, 5.500 m +). Txindoki eta Aizkorri lotu zituen ultra trail gogorrean, sailkapen orokorrean 30. izan zen, eta bigarren emakumea (12:39:13), Mayi Mujikaren atzetik (12:00:40).

Maitane Vilariño, Athletic-era



Athletic Club-ek 22 urteko olaztiarra fitxatu du bere aurrealderako, jokalaria Osasunarekin kontratua amaitu ondoren. Hiru urterako sinatu du. Bigarren taldera batuko da, baina aurre denboraldia David Aznarren aginduetara egingo du, eta lehen taldearen dinamikan egongo da denboraldian barna.

Hurrengo geltokia, Urdiain

TRIATLOIA Uztailaren 8tik martxan dago Sakanako Triatloi Campusa. Oihan Soto eta Ekhi Congil monitoreen esanetara, gustura dabilta izena eman duten neska-mutikoak. Askok larunbatean Urdiaingo igerilekuan 10:00etatik aurrera jokatu den XXII. Sakanako Haur Triatloian parte hartuko dute. 60 triatleta inguru espero dira.





Anne Etchegoyen, erdian, eta Gozategiko kideak, Urdiainen grabatutako bideoklipetan. UTZITAKOIA

Anne Etchegoyenen Gozategirekin 'Festa'

Nafarroa Beherako abeslaria Urdiainen egon zen Gozategirekin 'Festa' abestiaren bideoklipa grabatzen. Gozategirekin kontzertuak emanen ditu Sakanako zenbait herritan; gaur, Irurtzungo festetan

URDIAIN

Anne Etchegoyen abeslaria *Festa* abestiaren bertsioa kaleratu du, eta horretarako lagunak izan ditu: Gozategi. Kantua izen bereko diskoan kaleratu zuen Nafarroa Beherako abeslaria, *Festa*, 2023. urtearen amaieran argitaratu zuen, baina pandemia garaian sortu zuen. Abestia Iñigo eta Imanol Goikoetxearen Urdiaingo estudioan grabatu zuten, baita bideoklipa herrian grabatu zuten ere. Uztailaren 1etik plataforman digitaletan ikus-entzun daiteke. Abeslaria aipatu zuenez, Gozategi bere ikasle garaiko talderik "kuttunena" da eta "ohore" bat izan da taldearekin abestia grabatzea. Bertsio berriak taldearen 32. urteurrenarekin bat egiten du.

Euskal Herriko jai giroa, kalean gora eta behera ibiltzea, lagunekin elkartzea eta ondo pasatzearen izpirituak da nagusi kantuan. Gozategiko kideen esanetan, abestiaren letra eta melodia errespetatu dute, baina erritmo

"biziagoa" eman diote kantuari, "musika zubi bat sortuz". Abestia grabatzeko talde hobeagorik ez zegoela esan du Etchegoyenek.

Festak

Gozategi taldeak gaur, uztailak 19, ostirala, 00:30ean, kontzertua emanen du Irurtzungo festetan. Taldea 1992. urtean sortu zuten Asier eta Ainhoa Gozategik eta Iñigo eta Imanol Goikoetxeak. Hiru hamarkada daramatzate eszenatokiaren gainean eta haien kontzertuak arrakastatsuak izaten dira; Iñigo Goikoetxeak elkarriketa batean aipatu zuenez, plazan sentitzen dira erosoan: "Urte hauetan guztietan konturatu gara plazan egiten dugun lana oso garrantzitsua dela; ka-

GOZATEGI TALDEAREN KONTZERTUA IZANEN DA, GAUR, UZTAILAK 19, IRURTZUNGO FESTETAN

lejira batean ondokoari eskutik heltzeko ahalmena dugu, kontuan izan gabe nor dagoen ondoan".

Trikitixa doinuak dira taldearen oinarrietako bat, eta haren estiloa triki-poparen barruan sar daiteke. Festarako musika dantzagarria egiten dute. Lehengo diskoa 1995ean publikatu zuten, Gozategi, eta ondoren bost disko gehiago grabatu dituzte: *Ainhoa*, 1996an; *Kalanbreak*, 1998an; *Egunon*, 2000. urtean, eta, azkena, *G-Puntua*, 2018an.

Asier Gozategi (trikitixa eta ahotsak), Iñigo Goikoetxea (baxua eta ahotsak), Imanol Goikoetxea (gitarra eta ahotsak), David Gorospe (bateria), Asier Sarasola (tronpeta eta tronboia), Iñigo Perona (Tronpeta) eta Asier Ercilla (programazioak) dira Gozategi taldeko kideak.

Duela gutxi bi hilabete inguru Instagrameko kontua hackeatu zieten, bertako jarraitzaile eta informazio guztia galduz, eta beste bat sortu dute: [@gozategi_ofiziala](#).

Irurtzungo eta Olaztiko festetako irudiak

Festak iragartzeko kartel lehiaketak antolatu zituzten, eta festen hasieran irudien egileek sariak jaso dituzte

SAKANA

Uztailaren 17an hasi ziren Irurtzungo festak, eta igandean, uztailaren 21ean, amaituko dira. Aurtengo festak *Herri giroa*, *jaiki eta festara* deitutako irudiak iragarri ditu. Ibai Viñas Matxainen lana da; berak irabazi du 2024ko Irurtzungo festak iragartzeko kartel lehiaketa helduen kategorian. 400 euroko saria jaso du. 5 eta 10 urte bitarteko kategorian Maider Pires Arangoaren Parrandan kartelak irabazi du, eta 11 eta 14 urte bitartekoan Ander Siles Azpiroren Hiruta-

segi irudia. 75 eta 100 euro irabazi dute, hurrenez hurren.


Olaztiko Santa Ana festak uztailaren 25ean, ostegunean, hasiko dira, eta dagoeneko jakinarazi dituzte kartel lehiaketaren irabazleak: 15 urtetik gorakoan kategorian Roberto Flores Yoldiren *Kalean* kartelak irabazi du; 12 eta 14 urte bitartekoan, Alain Gurmino Gabariren *Gorri* irudiak, eta Julen Mazquiaran Jimenez, Unai eta Iñaki Camuel Zabalaren *Aupa geldiezinak* irudiak 11 urte bitarteko kategorian irabazi du.



BAZTERRETIK

OIHANE AGIRRE ULAIAR

Haren ataira





Iker Uribe artista Unanuko eskola zaharren eraikinean egindako mamoxarroen hormairudian.

Ohiturak koloreztatuz

Iker Uribe margolari lakuntzarrak Unanuko eskola zahar eta Mamoxarroen txokoaren eraikina biziberritu du hormairudi batekin; bertan, herriko ihoteetako pertsonaiak agertzen dira. Larunben Larrahe aldarearen aurkikuntzaren irudia ere egin du

Erkuden Ruiz Barroso UNANU

Unanuko eskola zaharren eraikinaren fatxadak irudi berria du: Iker Uribek egindako mamoxarroak. "Sakanan mozketa edo hausturarik gabe mantendu diren ihote bakarretarikoak dira, eta hori irudikatu dugu". "Detailtxo bat" bezala hasi zena, horma osoa koloreztatzen duen proiektu bezala amaitu da, eraikina biziberritzen. Hormairudian Unanuko ihoteetako pertsonaiak agertzen dira, eta katolak nagusi dira. Irudiek herrien ohitura, kultura eta nortasuna mantentzeko eta sustatzeko modu bat direla esan du Irurtzuren bizi den artista lakuntzarrak.

Dena hasi zen Uribek Unanun egindako beste hormairudi batekin: "Elizan ermitatxo eta beste zenbait gauza margotzeko esan zidaten eta Unanura beste hormairudia margotzera

joaten nintzenezan ermita oso polita zela pentsatzen nuen, baina beti neukan buruan mamoxarroekin zerbait egitea". Bertan margotzen ari zela, Unanuko jendea ezagutu zuen, "batez ere Angel, saltsero bat da", eta komentatu zion ea zergatik ez zuten mamoxarroekin zerbait egiten: "Batez ere jendea begira eta hor gelditzeko". Eskola zaharren eraikinean duela hiru urte Mamoxarroen txokoa sortu zuten, "Angelek eta unanuarrek sustatu duten txoko txiki bat da, umila baina oso polita, argazki zaharrak

"UNANUN MAMOXARROAK DAUDE; BETI NEUKAN BURUAN HAIKIN ZERBAIT EGITEA"

dituzte eta abar". Beraz, Uriber bururatu zitzaion bertan "detailtxo bat egitea, besterik gabe". Eskola zaharren eraikina "nahiko zaharra eta ez oso polita" zegoen, eta Angelek hordagoa botatuz zion: "Zergatik ez dugu dena egiten?".

Momentu horretan "dena aldatu zen": "Tamaina handiagokoa izango zen, eta eraikina bera nahiko traketsa da, leiho ugari ditu, ateak eta abar". Horiek kontuan hartuta bozeto bat egin zuen Ikerrek, eta herriarrek pareta konpondu, txuritu eta margotzeko prest utzi zuten. Irudia sortzeko orduan buruhasterik handiena "eraikina bera" izan dela esan du Uribek: "Aprobetxatu dugu gehienbat eraikina, itsusia zegoen eta orain kolorez bete dugu". Irudiaren oinarria edo elementurik nagusia katolak

dira: "Katolekin edo maskarekin hasi nintzen, Mamoxarroen txokoan sei maskara oso-oso zaharrak dituzte, duela bi mende ingurukoak dira. Hamabi omen zeuden eta sei mantendu dira". Horri bueltak emanez, katolen sinbologiari eta maskarek duten indarrarekin "tiraka" hasi zen irudia diseinatzen. "Argazkiak eta abar erabiliz pertsonaiak eta maskarak tarteak joan naiz". Dokumentatzeko unanuarrekin asko hitz egin du eta mamoxarroen inguruan argitaratutako bi liburutan oinarritu da.

Kolorea da eraikina "aldatze" behar zuen "zerbait" hori. "Kolore asko dago, diseinuarekin jolastu dut koloreari garrantzia emateko". Koloreak ihoteekin lotura handia duela azaldu du artistak: "Ihoteak udaberria datorrela irudikatzen dute, eta jantziek koloredun zintak eramate dituzte. Poztasun hori islatu nahi nuen". Eraikina "aldatzea eta edertzea" lortu dute la esan du.

Mamoxarroak

Uribek Unanuko mamoxarroak "betidanik" ezagutzen ditu. "Txikitatik gogoan dut etorri izan naizela eta gerora ere egon naiz". Unanuko elizako hormairudia egitea esan ziotenean, "mamoxarroak etorri zitzaizkidan burura ere". Une honetan, gainera, Unanuko ihoteetako pertsonaiak oso ezagunak egin dira, ZETA-Kek katolak erabiltzen dituelako, "izugarrizko booma izaten ari da eta dena kasualitatea izan da". Orain ere herrian hormairudia dute: "Gure ondare kulturala eta inmateriala balorean jartzea da. Hor ditugu hainbat ohitura mantendu behar direnak, gure nortasuna islatzen dutelako eta herri izaera ematen digutelako".

"Nire lanak edo proiektuak denak dira desberdinak. Normalean hormairudiak gai baten inguruan egiten ditut, eta horregatik ez naiz estilo edo modu batera lotzen". Hala ere, haren eskua edo marka ikusten dela esaten diote askok. "Baina izan

"ALDAREAK ESATEN DUENA IRUDIKATZEA NAHI ZUTEN, BAITA ALDAREA BERA AGERTZEA ERE"

daiteke hormairudi bat kolore pila bat duela eta beste bat txuri beltzean". Azken proiektuetatik gustatu zaio ohiturei buruz eta inauterien jatorriari buruz irakurri eta ikasi duena: "Mamoxarroak, zer esan nahi duten katolek, maskarek eta abar. Irudiaren bitartez dagoenari zentzua ematen diogu, eta hori asko gustatzen zait".

Hormairudiak egitetik "dena" gustatzen zaiola esan du Uribek, "baina iruditzen zait herri askotan izaera edo nortasun bat dagoela eta tresna oso ona da gure ondarea hor markatzeko eta gehiago ere esateko; nondik gatozen esateko". Edozein irudi polita izan daitekela gaineratu du, baina zenbait tokitan edo gunetan jartzean "nortasuna ematen diozu, eta jendeak eskertzen du". Herria egiteko modu bat da: "Tresna bezala oso handia da, zerbait zaharra berritzen duzu eta beste itxura bat ematen diozu. Irudiekin esanahi bat ematen diozu".

Sekretua

Denbora luzez sekretu bat gordetu behar izan du Uribek: Larunben aurkitutako Larrahe baskoien dibinitateari eskainitako aldarea. "Harrituta gelditu naiz larunbetarrekin bi urtez sekretua gordetu dutelako. Alde horretatik oso polita izan da Larunbe ezagutu dudalako; oso berezia da, oso batuak daude eta dena auzolanean egiten dute". K.o. I. mendeko harrizko pieza bat da Larunben aurkitu zuten aldarea, eta latinez idatzitako testu bat agertzen da: emakume batek Larrahe jainko baskoiari eginiko eskertzea jasotzen du. Aranzadiko ikerlariak egin zuten aurkikuntza eta Uriberri frontoiaeren atzealdean hormairudia egiteko eskatu zioten.

"Aldareak esaten duena irudikatzea nahi zuten, baita aldarea bera agertzea ere". Izan ere, aurkikuntza ez da Larunben geldituko eta modu honetan aldarea herrian egongo da. Aldarean latinezko alfabetoan idatzitako testua bat du; Valeria Vitella izena agertzen da, baita Larrahe izeneko dibinitate baskoiaeren izena ere agertzen da. "Larrahe jainkoa gurtzen duela uste da, eta hortik jo nuen: txekorra, txoria, neska bat gora begira espiritualitatea nolabait islatuz, larreak...".

ESKELA



Joxe Mari Gabiria Pikasarri

"Igo nazazu nire mendira aurki dezadan bidea, askatu nadin zure loturaz behar dezadan airea"

Betetzeko oso zaila izango den hutsunea utzi diguzu

Etxarriko familiye



ESKELA



Kontxi Lezea Izagirre

Beti egongo zara auzoaren bihotzean

Ferialeko bizilagunak

Altsasu

IRAGARKI SAILKATUAK

OPATUTAKOAK

**Etxarri Aranazko udal-
txearen estalopean
Wilson markako tenis
raketa baten funda beltza opatuta:** Irratian dago.

Etxarri Aranazten 6 gilitza aurkitu dituzte: *Hotssein!* giltzarrapo batean, gomazko bi panpin txiki-ekin batera. Irratian daude.

LEHIAKETA

Zurrumurruen kontrako ipuin laburren V. Lehiaketa: Aniztasunean elkarbizitza sustatuko duen istorioa sortu eta lehiaketan parte hartzera gonbidatuta zaude Mank-en Anizartearen zerbitzuaren eskutik. Bidali zure ipuina anizartean@gmail.com helbide elektronikora uztailearen 30a baino lehen. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian. Zalantzak 648 070 710 telefonora deituz.

IKASTAROA

Ergoienako Udala ikasturteko ikastaro eskaintza prestatzeko informazio bila: Haurrendako ingeles ikastaroa eta helduentzat sukaldaritzaren eta ingeles ikastaroak marbxan jartzeko informazio hau behar du: zure izen-abizenak, tfnoa, herria, intereseko ikastaroa eta ordutegia. Bidali informazioa info@ergoiena.com e-posta elektronikora edo udaletxetik pasa zaitze agorriaren 15a baino lehen.

OHARRAK

Olaztikoko jaietan haurrendako historiaurreko Ginkanan izen ematea: Uztailearen 27an, larunbatarekin, 11:00etan San Migel plazan egingo den Historiaurreko Ginkanan parte hartzeko uztailearen 22a baino lehen 699 635 187 telefonoan izena eman behar da. 7 urtetik gorako haurrendako da eta 2017 eta 2018 urteetan jaiotakoek pertsona heldu batekin egon behar dute. Antolatzailea Aranzadi Zientzia Elkarte eta Olaztikoko Udala.

Arbizuko Utzubar Ekogunean konposta eskuragarri: Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuak gogorarazi du, nahi duen guztiak urte guztian zehar konposta eskuragarri duela bertan. Informazio gehiago nahi duenak info.hondakinak@sakana-mank.eus e-postara idatz dezala edo 900 730 450 telefonora hots egin dezala.

Orkli Kooperatibak "Orkliidea" dirulaguntza martxan jarri du: Orkli Kooperatibak 50.000 euro banatuko ditu Euskal Herriko proiektu desberdinak babesteko asmoarekin. Onuradun izateko baldintzak hurrengoak dira; irabazi asmorik gabeko erakundea izatea, egoitza nagusia Euskal Herrian izatea eta proiektu izaera duen proposamena aurkeztea. Proiektuak aurkezteko epea abuztuaren 31n itxen da. Informazio guztia www.orkli.com webgunean eta

orkliidea@orkli.es helbide elektronikoa.

Etxarri Aranazten aisialdi begirale ikastaroa egin dutenendako dirulaguntza: Udalak diruz lagunduko ditu 2023ko lastailaren 1etik 2024ko maiatzaren 31ra arte egindako ikastaroen matrikulak. Onuradunek gehienez 450 euro jasoko dituzte. Informazio gehiago www.etxarriaranaz.eus web orrian edo udaletxean.

Lakuntzako festetako haurren harrera: 2023an jai eta Lakuntzan errotatuta ez dauden haurrek zapia jaso nahi badute udaletxean izena eman behar dute garilaren 26a baino lehen.

Bakaikuko festetako Etxera bazkarirako txartelak salgai: Bazkaria uztailearen 24an, asteazkenean, izango da. Helduek 15 eurotan eta langabetuek eta ikasleek 12 eurotan erosi ahal dituzte txartelak dendan, Koxkon edo elkartearen ordenagailuan uztailearen 21era arte.

Altsasuko Zelai kaleko afarirako txartelak salgai: Irarri dutenez kalejira, herri kirolak, baka-riketza eta musika izanen dira garilaren 20an egingo duten auzotarren festan. Norberak aukia eta postrea eramane behar ditu. Txartelak Zelai kafe-tegian.

Aupa Etxarri kamiseta: Gwendalen kontzertua dela eta atera diren kamisetak probatzeko aukera izanen da Etxarri

plazan ostegun eta ostiral arratsaldetan, eta igandetan, eguerdian.

Altsasuko Aek euskaldun baten bila dabil: Udan, asteen arratsalde batez bi euskaldun berriekin euskaraz aritzeko. Informazio gehiago 600 482 024 telefonoan.

Bakaikuko udako auzolanak: Udaren zehar egingo diren auzolanetan izena emateko aukera dago udala@bakaiku.eus helbidera idatziz, 948 562 509 telefonora deituz, 622 268 161 WhatsAppera idatziz edota www.bakaiku.eus web orrira sartuz.

Bi autobus ordutegi bertan behera: La Burundesak jakinarazi duenez, Olaztik Iruñera astegunetan, 6:30ean abiatzen den autobusa eta Iruñetik Olaztik astegunetan, 11:45ean abiatzen den busa bertan behera gelditu dira.

Gurutze Gorriak Altsasuko Otadia aterpetxean laguntzeko boluntarioak behar ditu: Errefuxiatuei gatzelaniazko klaseak emateko asteen behin edo bitan eta haurrekin jolas jarduerak egiteko. Asteen bitan litzateke, uztaile eta abuztuaren. Gurutze Gorriaren harremanetan jartzeko 617 351 603 telefonora dei dezala edo aterpetik pasa dadila.

Etxarri Aranazko Abesbatza Txikiak zure aho-tsa behar du: 6-15 urte bitarteko haurrez osatuta dago abesbatza eta kide berrien bila dabil. Interesa duenak harremanetan

jar dadila corotxikis@gmail.com helbidera idatziz. Informazio gehiago www.coraldeetxarriaranaz.com web orrian.

Euskara ikastaro teknikoak egiteko dirulaguntzak: Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez, atzera ere, ikasketa ofizialak eta arautuak ez diren ikastaro, jardunaldi, biltzar, mintegi edo gisakoetan parte hartu duten herritarrei dirulaguntza emateko deialdia zabaldu du. Joan zen urteko azaroaren 1etik aurtengo abenduaren 31ra bitarteko ikastaroen matrikulak. Beti ere, edozein gairi buruz euskaraz egindakoak badira, aisialdiko monitorea edo zuzendari izateko euskarazko ikastaroak barne. Horiez aparte, euskararen edota hizkuntza gutxituen normalizazioarekin edo soziolingüistikarekin zerikusia dutenak ere lagunduko ditu. Laguntzatik kanpo geldituko dira egoitza eta kilometraje gastuak. Euskara Zerbitzuak jakinarazi duenez, aurtengo abenduaren 31rako bukatuta ez dauden ikastaroen kasuan, gubiernez %80ko asistentzia eskatuko die parte hartzaileei data horretarako. Deialdiari buruzko informazio guztia sakana-mank.eus webgunean.

SOS GAZA. Gernika-Palestina herri ekimenak Yala Nafarroa plataformekin batera Elkartzasun Aktiboa iniziatiba martxan jarri du: Netanyahu nazioarteko epaileen

aurrean eramateko, Gazan elkartzasuna proiektuak bultzatzeko Mundubat GKE-ren bitartez eta Palestina leku guztietan ikusarazteko. Ekarpene ekonomikoak egiteko, Nafarroan ES36 3035 0083 2808 3014 0037 kontu korrontean dirua sar dezakezu, edo zure banketxearen aplikazioaren bitartez BIZUM EMN/DONAR atalean Mundubat Fundazioa bilatu eta 08737 kodea erabilita dirua eman.

Aita Mariren 2024ko lehen erreskate-misioa finantzatzeko Crowdfunding kanpaina martxan: Itsas Salbamendu Humanitarioak crowdfunding kanpaina hasi duela jakinarazi du Goteo plataformaren bitartez eta Fiere Banca Eticarekin lankidetzan. Informazio gehiago www.smh.eus web orrian. Parte hartzeko sartu ondoko loturan: <https://www.goteo.org/project/barco-de-salvamento-aita-mari>.

Aralarko Santutegiko museon bisita gidatuak egiteko aukera: Aralarko Santutegiko museoak ikusi eta bisita egiteko ordutegiak asteartetik larunbatera 11:00etan, 12:00etan, 16:00etan eta 17:00etan. Igandeetan 10:30ean, 11:30ean, 13:30ean, 16:00etan eta 17:00etan. Pertsona bakoitzak 3 euro ordaindu behar ditu.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70 €
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek %10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

JAIOTZAK

- **Unax Garcia Alamillo**, uztailearen 12an Altsasun.
- **Ane Tajuelo Santamaria**, uztailearen 12an Altsasun.

HERIOTZAK

- **Daniel Iurrtia Barriga**, ekainaren 18an Irañetan.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEN 13:00AK BAINO LEHEN.

Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

LARUNBATA 20

LAKUNTZA Mendi irteera.

Zabalarte mendi elkartearen kostaldera mendi irteera: Ondarru – Lekeitio; 14 kilometro, 450 metrotako desnibel. Bazkaria Lekeitioan. Izena ematea: Ogi Berrin, 45 eurotan. **07:30ean, plazatik.**

URDIAIN Triatloia.

Sakanako Haur Triatloia, Nafarroako Kirol Jokoen Triatloi Txapelketarako baliagarria. **10:00etan, igerilekuetan.**

ALTSASU Futbola.

Futbol 7 Txapelketa, Altsasu Kirol Elkartek antolatuta. Talde bakoitzak hamabost futbolari izan beharko ditu, 16 urtetik gorakoak. Izen ematea 100 euro taldeko. Sariak: 250 euro, saskia eta trofeo; txapeldunordeak 150 euro, saskia eta trofeo, hirugarrenak 100 euro. **10:00etatik aurrera, Dantzalekun.**

ZIORDIA Saskibaloia.

Ziordiko 3x3 Saskibaloia eta jaurtiketa txapelketa solidarioa Markelen alde, Ziordiko Udalak eta Ziordi Running taldeak antolatuta. Txapelketa martxa dagoen bitartean zozketa solidarioako txartelak erosi ahaliko dira. **10:00etatik aurrera, parkean.**

ALTSASU Festa.

Zelai kaleko afari-merienda. **18:00 Txupinazoa eta kalejira auzotik.**
19:00 Herri kirol herrikoiak.
20:45 Afari-merienda.
Afal ostean, Inxioren bakarrizketa.

IGANDEA 21

ALTSASU Mendi irteera.

Bargagainera igoera egingen dute Altsasuko Mendigoizaleak taldeak deituta. **09:00 Irteera, udaletxetik.**

22:00 Hamaiketakoa, Bargagaingo gurutzearen zelaian.

12:00 Zortzikoa.
13:30 Zelaia garbitu eta jaitsi.

OLATZAGUTIA Urteurrena.

Barandi tabernaren IX. Urteurren festa. **12:00 Gaztelu puzgarria.**
13:00 El Gran Ritxarsonen kontzertua.
14:30 Paella jatea.

ASTELEHENA 22

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. **12:00etan, udaletxearen aurrean.**

ASTEARTEA 23

BAKAIKU Tailerra.

Uraren kalitatea tailerra, Aiztiren eskutik. Izen ematea: 613 01 69 68, 10 eurotan. **10:30etik 13:00etara, plazan.**

ASTEAZKENA 24

OLATZAGUTIA Kontzertua.

Chuchin Ibañez mariatxiaren kontzertua. **20:00etan, Barandi tabernako terrazan.**

IRURTZUN Udako zinema.

PAN, *Sekula Betirako bidai* filmaren emanaldia, euskaraz. **22:00etan, Barazkigunen.**

OSTIRALA 26

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

The Traveners taldearen kontzertua, *Kultur 2024* programaren barruan. **21:00etan, plazan.**

ALTSASU Zuzeneko.

Prácticamente perfectas podcastaren lehenengo denboraldiaren azken kapitulua zuzenean. **22:00etan, Haritza Tabernan.**



IRURTZUN Luisa Aldaburu artistaren artelanen erakusketa.
Pikuxar tabernan.



UZTAILAK 22-26

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Pentsaren azalak

10:20 Albisteak eta kirolak

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin

14:00 Errepikapena

Hizketan

Uztailak 22 Uxua Azpiroz Altsasuko Institutoak jaso duen sariaz

Uztailak 23 Iker Uribe horma irudiez

Uztailak 24 Bertso saioa (Bertsoa.eus)

Uztailak 26 Agenda berezia

DUELA 25 URTE...



Uharten etxeak egiten

Urtero etxeren bat egitetik, hiru enpresa aldi berean hainbat etxebizitza egitera pasa ziren Uharte Arakilen. Herriaren Alde Zaharrean hemezortzi etxebizitza eraikitzen ari ziren eta beste 25 bat Itxesi auzoan. Eraikitzen ari ziren etxe gehienak familia bakarrak ziren. Etxeetako batzuk babes ofizialekoak ziren eta horrek gazte batzuei etxebizitzarako sarbidea erraztu zien. Ubertearrek kezka zuten herriko populazioak behera egin zuelako.



www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika modernoa

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



FESTAK

ITURMENDI FESTAK

UZTAILAK 19 Ostirala

KALDERETE EGUNA
IGAREN RASTA GANJA JAMAICA
CLASH REGGAE EGUNA

04:20 Zurrakapotea Ximonaren eskutik.

IGAk antolatuta.

Goizean zehar, kalderete prestatzea.

13:00 Auzatea eta musika, plazan.

14:30 Mozorrotutako kalderete txapelketa. Mozorro gaia: Rasta ganja Jamaica Clash.

18:00 Eztanda Txarangarekin kalejira.

19:00 Japoniar bonbak.

20:00 Auzatea Pancho Balbuena girotuta.

20:03 DJ Kale, gaztetxearen kanpoaldean.

IGAk antolatuta.

22:58 Bide Aunitz taldearen kontzertua, gaztetxean.

IGAk antolatuta.

24:01 Bubblin' Sound System, gaztetxean.

IGAk antolatuta.

21:45 Zezensuzkoa.

00:00-03:00 Bide Batez erromeria.

UZTAILAK 20 Larunbata

11:00 Pala partidak, frontoian.

13:00 Auzatea ehiztarien eskutik.

13:30 Irati eta Ekhiñeren kontzertua.

15:00 Herri bazkaria, Aitzkoarren eskutik.

18:00 Max Verdie hipnotizatzailea, frontoian.

20:00 Auzatea ehiztarien eskutik, Sukar taldeak girotuta.

22:00 Zezensuzkoa.

23:11 Bakeiku remixe, gaztetxean. IGAk antolatuta.

00:00 *Ai hau pena ni!* festen amaierako traka.

00:00-03:00 Sukar taldea.

IRURTZUN FESTAK

UZTAILAK 19 Ostirala

10:00 Dianak.

11:30 Erraldoi eta Buruhandien konpartsa.

14:00 Kalderete lehiaketaren epaia. Izena ematea 13:00ak arte, arkupeetan.

14:30 Kaldereteak. Antolatzaileek ogia, ardoa, mahaiak eta aulkiak jarriko dituzte. Izena ematea uztailearen 18ra arte.

17:30 Bazkalostea eta kalejira, kale animazioa Elektrotxuffa Elektrotxarangarekin.

17:30-19:30 Zirku tailerra Levelibular taldearekin, Gernika plazan.

19:00 2024ko Nafarroako Foru Komunitateko XIX. Erremonte Profesionaleko Txapelketaren Kanporaketa, ADANOren aldeko txapelketa.

Lehenengo partidua:

Otxandorena - Baztan / Mikelarena - Leatxe.

Bigarren partidua:

Uterga - Agirrezabala / Matxin III - Mitxeo.

Karaokea, Barazkigunen.

Barazkigunek antolatuta.

20:00 Xaiborrekin musika emanaldia.

22:30 Zezensuzkoa, kultur etxean hasi eta Gernika plazan amaitu.

23:00 Kontzertuak: Mendeku, Naxker, DJ Boletus Rumberus, Barazkigunen.

Barazkigunek antolatuta.

00:30 Gozategiren kontzertua.

Ondoren, DJ Jotatxo.

UZTAILAK 20 Larunbata

10:00 Dianak.

12:30 Metamorfosien jokoa Pantzart konpainiaren antzerkia euskaraz, Foru plazan.

17:30-18:30 Apar festa, Gernika plazan.

18:00 Afizionatuen Eskuzko Pilota Jaialdia.

19:30 Xaloki taldearekin Xalki.

21:30 Jauziak.

22:00 Larrain dantza.

22:30 Zezensuzkoa, kultur etxean hasi eta Gernika parkean amaitu.

00:30 Oihan Vega diskofesta.

UZTAILAK 21 Igandea

10:00 Dianak.

11:15 Sanduzelai eta Irurtzungo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren topaketa.

14:00 Erraldoi eta Buruhandien konpartsaren agurra.

14:30 Jubilatuen bazkaria.

Ondoren, dantzaldia.

17:30 Irurtzungo dantza txikien eskolaren emanaldia, plazan.

19:00 XXVI. Eskorga Kronoeskalada.

20:00 Los Tenampas taldearen kontzertua.

22:00 Larrain dantza.

22:30 Zezensuzkoa, kultur etxean hasi eta Gernika parkean amaitu.



IRURTZUN Festen txupinazoa Irurtzungo emakume taldeak piztu zuen.

00:00 On festa DJ. Gaixoa ni.

BAKAIKU FESTAK

UZTAILAK 24 Asteazkena

13:00 Festen hasierako etxajua.

Japoniar bonbak, buruhandiak eta Bakaikuko zortzikoa.

13:30 Auzatea eta Txorongo Txarangarekin kalejira herrian zehar.

15:00 Etxera bazkaria. Ondoren, Txorongo Txaranga.

19:00 Bezperak.

20:00 Auzatea ehiztariak eskainita eta buru handiak.

20:00-22:00/00:00-03:00 Fan&Go taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 25 Osteguna

12:00 Meza.

12:30 Haur eta gazteendako jolasak: zaku lasterketa, puxikak lehertzea, botilak urez bete, sagarrak hozkatzea eta garraiatzea eta bizikletarekin zintak hartzeko ginkana. 4 urtetik gorako haurrei zuzenduta.

Oharra: Bizikleta eraman behar da.

13:30 Auzatea.

Japoniar bonbak eta buruhandiak. Tenampak taldearen kontzertua.

16:00 Txirindularitza: Eskolen mailako Bakaikuko Santio Saria.

Bakaiku, Iturmendi eta Etxarri Aranatz artean.

Aralar Txirindularitza Taldeak antolatuta.

20:00 Auzatea Bakarrekotxea elkarrekin eskainita eta Zarata txarangak girotuta.

22:00 Zezensuzkoa.

00:30-03:30 Luhartz taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 26 Ostirala

12:00 Meza adinekoen omenez.

13:30 Pancho Balbuena kontzertua, plazan.

13:30 Auzatea.

Japoniar bonbak eta buruhandiak.

14:30 Jubilatuen bazkaria eta omenaldia, elkartean.

18:00 Pilota partidua:

Haitz Larrañaga – Tasio Arbizu / Laihotz Aguirre – Oihan Palacios

Unai Perez – Oihan Lopetegi /

Oier Mendinueta – Adur Huarte

Asier Zubiria – Alain Berastegi /

Xabier Etxeberria – Jokin Olarra

18:30 Emakumeen pala partidak.

20:00 Auzatea.

00:30 Kontzertuak: Guri Bost, Kaparrak eta DJ Jotatxo.

ITXASPERRI

UZTAILAK 25 Osteguna

BAILARAREN EGUNA

11:30 Omenaldia bailarako jaioberriei.

12:00 Plaza dantzak Oskia Txistu taldearekin.

ERROTZ

UZTAILAK 25 Osteguna

BAILARAREN EGUNA

13:30 Ikastaroen erakusketa.

14:30 Bazkaria eta bazkalostea: mus eta partxis txapelketak eta puzgarriak.

Oharra: Bazkarirako tiketak Arakilgo udaletxean uztailearen 23ra arte.

16:30 Pancho Balbuenaekin musika.

18:30 Kontzertua: Anphora.

19:30 Musika.

OLATZAGUTIA FESTAK

UZTAILAK 24 Asteazkena

GAZTE EGUNA, OGAK ANTOLATUTA

12:00 Txupinazoa. Ondoren, karro poteoa.

14:30 Bertso bazkaria.

18:30 Mozkor olinpiadak.

23:00 Kontzertuak:

Mendeku eta Akerren seinale, gaztetxean.

UZTAILAK 25 Osteguna

10:45 Kartel lehiaketaren sari banaketa, Gartzia Ximenez plazan.

Euriarekin udaletxean.

11:00 Zapi banaketa, Gartzia

Ximenez plazan.

Euriarekin udaletxean.



NEREA MAZKIARAN

ITURMENDI Josu Etxeberria txirindulariak piztu zuen festa Karmen egunean Iturmendin.

11:30 Hamaiketakoa, Gartzia Ximenez plazan, euriarekin udaletxean.
12:00 Suziria, udaletxean. La Cigarra txarangarekin kalejira eta erraldi eta buruhandiak.

12:00 Ezkila jotze nagusia.
18:00 *Azken fakirra* Zirika Zirkus konpainiaren antzezlan, Intsumisioaren plazan.
Euriarekin udal frontoian.
20:00 Banaketa, San Migel

plazan.
20:00 Kontzentrazioa, plazan. OGAK antolatuta.
20:00-22:00 Sukar taldearekin musika, San Migel plazan.
22:00 Zezensuzkoa, San Migel

plazan.
00:30-03:00 Sukar taldearekin musika, San Migel plazan.

UZTAILAK 26 Ostirala

11:30 Erraldoien eta buruhandien irteera, Domingo Bados eskolatik.
12:00 Hamabietakoa, San Migel plazan.
12:00-14:00 Haur eta gazteendako parkea, Memoria Historikoaren parkean.
Euriarekin Erburua kiroldegian.
13:00 Bermut kontzertua: *Qué la canten*, Adriana Olmedo eta Nerea Bonitorekin, San Migel plazan.
14:30 Haur bazkaria, Memoria Historikoaren parkean.
Euriarekin, eskolako frontoian.
14:30 Jubilatuta eta adinduendako bazkaria, Kamiogaina elkartearen. Duo Volumen taldeak girotuta.
15:00 Herri bazkaria, Memoria Historikoaren parkean.
Euriarekin, eskolako frontoian.
15:30-18:30 Haur eta gazteendako

parkea, Memoria Historikoaren parkean. Euriarekin, Erburua kiroldegian.
19:00 *Dale Ramón* Trapu Zaharra konpainiaren ikuskizuna, Intsumisioaren plazan.
Euriarekin udal frontoian.
20:00 Banaketa, San Migel plazan. Kontzentrazioa, plazan. OGAK antolatuta.
20:00-22:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia, San Migel plazan.
21:00 Japoniar bonbak, Intsumisioaren plazan.
22:00 Zezensuzkoa, San Migel plazan.
23:30 Mariachi Imperial de Guanajuato & Ballet Folclorico Leyendas de Mexico, futbol pistan.
Euriarekin udal pilotalekuan.
00:30-03:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia, San Migel plazan.
03:30 DJ Boletus Rumberus, gaztetxean.
OGAK antolatuta.



"Ermita garrantzitsua izan da"

Liburu berria aurkeztu zuen Nicolas Arbizu Gabirondok garilaren 15ean: 'Santa Marina-Trinitatea. Bakaiku, Iturmendi eta Urdiaingo baseliza'. Aurkezpenean izan ziren Marina, Trinidad eta Irune deitutakoek liburua doan jaso zuten

Alfredo Alvaro Igoa ITURMENDI

1 Aurretik ermitaz idatzi zenuen?

Liburuxka bat egin nuen 1992an. Batez ere, Urdiainek zergatik utzi zuen jabetza argitu nahirik. Udalek ordaindu zuten argitalpena. Liburuan Jose Mari Satrustegik idatzi zuen hitzaurrea mantendu dut. Urdiainen jabetza uzteko arrazoiak ulertzeko oso interesgarria da.

2 Zergatik merezi du ermitak liburua?

Ditudan gauzak txukuntzen ari naiz eta ermitak gehiago merezi zuela uste nuen. Gainera, Migel Angel Sagaseta Ariztegi, Urdiaingo apaizak, Urdiain eta Santa Marina ermitari buruzkoak esanak zizkidan, eta idatziak zituen. Ermita berea ere izan zen 1860 urtera arte. Eta nahiz eta orain jabea ez den, Urdiain sartu beharra zegoela iruditzen zitzaidan. Gainera, Iturmendiko apaiz etxean Santa Marina eta Trinitate egunerako idatzitako sermoi batzuk opatu ditut, erdia edo gehiago euskaraz dira. Bestalde, Asier Barandiaran Amarikak Trinitateari buruz Resurreccion Maria Azkuek jasotako bertsoen berri eman zidan.

3 Zergatik utzi zuen jabetza Urdiainek?

Burundako Udala desegin zenean 1843an, Iturmendik beretako hartu zuen ermita, herri parean dagoelako. Bakaiku eta Urdiain kexatu ziren. Bakaikurekin konpondu zen eta, horrela, Bakaikuko Udalak ere jurisdikzioa du. Urdiainek ez zuen halakorik nahi izan, eta joateari utzi zion. 1860an auzibidea izan zen. Bestetik, azken Karlistadan, 1873an ermita desegin zuten. Bakaikuko eta Iturmendiko Udalek Urdiaingori proposatu zioten ermita hiru udalen artean berreraikitzea (1891). Ez zuen nahi izan.



Nicolas Arbizu Gabirondo, liburua eskuan duela, aurkezpenaren aurretik.

4 Ordura arte hiru herriena zen?

XVI. mende akabera arte ermita Burunda guztiarena zela.

5 Ermita bat eta bi gurtza?

Bai, Trinitatea (Aste Santuaren arabera, baina beti igandean) eta Santa Marina (garilak 18). Uste dugu aurreneko ermita Trinitatearen izenpekoa zela. Trinitate ermitak X. edo XI. mendeak izanzen dira, duela mila urtekoak. Gurea Aralarakoaren antzekoa izanzen zela pentsatzen dut. Liburuarekin Trinitateari garrantzia eman nahi nion, ospakizun garrantzitsuena da. Gaur egun Trinitatearen erretaularik eta irudirik ez dago ermitan, bakarrik Santa Marina dago.

6 Eta Santa Marina?

Donejakue bidea eginen zuten burundar batzuek Santa Marinaren debozioa ekarriko

zuten. Nafarroan ia kasu bakarra da gurea.

7 Zein egoeratan dago ermita?

Ona. Azkeneko lanak 2021ean egin zirenean ermitaren buruan aurreko eraikin baten zimentazioa agertu zen. Barruan lehen ermita haren luzera adierazten duten harri batzuk agertu ziren, egungoaren erdia-edo. Ermita baino otoitz leku modukoa izanzen litzateke.

8 Beste ezer azaleratu zen?

Barruko harriak berriro hartu genituenean, XIII. mendeak pinturak mantentzen zituen bloke bat opatu nuen. Letra gotikoak dituzte pintura horiek. Pentsa daiteke ermita guztiz pintatuta egonen zela. Lurra zati batean jasotzean errekarriak agertu ziren, berezko zorua zena. Ermitak kanoi ganga zuen, hori

eraikin pixka bat nabarmenak zuten. Iturgoiengoak mantentzen du harrizko ganga. Ermita ongi gelditu zen. Baina andretxeetako, udalaren etxe eta garai bateko tabernako eraikinetako teilatuak berriro beharra dute.

9 Mendetan gurtza tokia izan da.

Bai. Topalekua izan da ermita. Bakaikuar eta iturmendiarrez aparte, urdindarrak Santa Marinara igotzen jarraitu dute. Debozio handia zioten etxarriarrek, ergoendarrek eta ameskoarrek. Bakoitza bere egunean igotzen zen. Ermita garrantzitsua izan da. Pazko laugarren egunean mendiko artzain guztiak mezara joaten zirela esana didate. Bestetik, Pazko laugarren (Trinitate aurreko asteazkena), Trinitate

eta eta Santa Marina, hiru egunak bi herriendako dira, nahiz eta azkenekoak Iturmendiko festekin bat egin.

10 Azala eta kontrazala?

Ermita eta inguruko eraikin guztiak ageri dira azalean, baita haien jabe diren bi herriak. Kontrazalean ermitaren inguruan egiten den Santa Marinako prozesioko argazkia dago, lapurtu ziguten disko formako estela agertzen delako. Haren kopia egin eta jarri genuen.

11 Non eskuratu daiteke liburua?

Etxarri eta Altsasuko liburu dendetan. Bakaikun eta Urdiainen liburuaren aurkezpenak egin nahi ditut. Liburuak 170 orri ditu eta elebiduna da.

FESTETARAKO DENA PREST?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe





DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

f o

619 821 436
info@gkomunikazioa.eus
www.gkomunikazioa.eus
 Foru plaza, 23-1. Altsasu

